



Eta ezustean, "Kapitalismoa borrokatu" pintada egin zuen artistak

DONOSTIA. Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzaren baitan, *Hormek diote* proiektuaren lehen parte gauzatu zuten urrian hainbat artistak. Hiriko bost pareta beste horrenbeste artistaren esku utzi zituzten "istorio bana" konta zezaten; artista horietako bat da Dizebi itsasondoarra. Baina Dizebik ez zuen marrazki bereziki ederrik egin, hirian ikusgarritasun handia duen dorre grisean. Andamioa baliatuz, ondorengoa idatzi zuen: "Kapitalismoa borrokatu". Ondoren, ezabatu egin zuen dena "Kapital" izan ezik. Egun, horrela dago. "2016 kultur hiriburutza zer den pentsatu behar dugu, ekimen hauek zertarako egiten diren eta kulturak hiriburutzan zer paper jokatu duen", adierazi du.

Grabitazio-uhinak: aro berria hasi da astronomian

Unai Brea
@unaibrea

Albert Einsteinek erlatibitate orokorraren teoria argitaratu eta mende batera, teoria horrek aurreikusitako grabitazio-uhinak zuzenean detektatu dituzte -1974an atzeman zituzten lehen aldiz, zeharka- LIGO behatokiko zientzialariek.

Zer dira?

Einsteinek esan zuen gorputzek beren inguruko espazio-denbora deformatzen dutela, eta mugitzen diren gorputzek, gainera, uhinak eratzen dituztela. Hori da behatu dena. LIGOk atzeman duen uhina, zehazki, bi zulo beltzen arteko talkak eragindakoa da.

Zulo beltzak: egon badaude

Neurtutako seinaleari esker, zulo beltzak existitzen direla ziurtzat jo daiteke azkenik. Orain arte, haien existentziaren froga bakarra beste objektu astronomiko batzuetan duten eragina zen, baina ez zen erabatekoa.

Ohikoa da detektatu den gertakaria?

Aro berria hasi dela adierazi dute zientzialariek. Grabitazio-uhinek ezkutuan zeuden unibertsoko zenbait gertakari ezagutze-ko aukera emango dute. Baina ez dakigu neurtu dena bezalako fenomenoak ohikoak diren edo ez.

SIRIAKO GERRA



470.000

biztanle hil eta 1,9 milioi zauritu ditu Siriako gerrak hiru urteotan, Syrian Centre for Policy Research erakundearen arabera.

%45

etxetik ihes eginda dabil, 6,5 milioi Sirian bertan, 4 milioi inguruko herrialdeetara joanik. Denera herrialdeak populazioaren %21 galdu du.



PROTOKOLOA IKASLE TRANSEXUALENTZAT

Ikasle transexualak artatzeko protokoloa ari da prestatzen Eusko Jaurlaritzak. EAEko ikastetxe guztietara zabaltzeko asmoa du eta helburua eskola giroan haur eta gazte transexualek dituzten beharrak asetztea da.



HEGO EUSKAL HERRIRAKO GIZARTE SEGURANTZA

Hego Euskal Herrirako Gizarte Segurantzak eta Pentsio Sistema propioa proposatu du EAJk. "Pentsioen Sistema Publikoak Espainiako Estatuan gaur egun pairatzen duen defizit-egoerari alternatiba" bilatu nahi izan dio. Neurria 2019. urtetik aurrera aplikatuko litzateke.



EZTABAIDA "ABIAN"

Ezker abertzaleak sarean eskuragarri jarri du *Abian* txostena, herri eta auzoetan eztabaidatzeko. "Zutik Euskal Herriaren potentzial guztia askatzea" da asmoa.